

2015erako antolatu diren ekitaldien zerrenda

URTARRILA

- Simon Arrietaren omenez BEART (Bergarako Arte Elkartea) kolektiboak antolaturiko I. Erakusketa Bergarako Aroztegi Aretoan, mendeurreneko ekitaldien hasiera gisa. Inaugurazio eguna: urtarrilak 16, 19:00etan.
- Bergarako ikastetxeen lankidetzak abiatuko da Simon Arrietaren bizitza eta lanekin zerikusia duten praktikekin.

OTSAILA

- Simon Arrieta jaio zeneko mendeurrena: 1915eko otsailaren 9 a.
- Inauteriko kontzertua Simon Arrietaren omenez. Otsailaren 13an, 22:30ean.

MARTXOA

- Lehenengo "margolan-foruma". Iruzkindu beharreko lana "Katxutxo" (1940) izango da. Bergarako Udaletxeko areto nagusia. Bergarako Udaletxean dauden lanetan zehar ibilbide bat egiteko baliatuko da. Bingen de Pedro bergarar margolaria izango da moderatzailea. Otsailak 7an
- Simon Arrietaren ikasle izandako margolarien erakusketa Bergarako Laboratorium Museoko aretoan. (Berretsi beharrekoa, martxoa-apirila)

APIRILA

- Simon Arrietaren lanen online katalogazioa jendearen esku jarriko da Udalaren web orrian.
- Kultura trukea Baionarekin. Baionako Des Corsaires taldearen erakusketa Bergarako Aroztegi aretoan. Inaugurazioa 30ean eta amaiera maiatzaren 17an.

MAIATZA

- Bigarren "margolan-foruma", Bergaran egitekoa, Migel Altuna LH Institutuan, Simon Arrietarekin estuki loturiko ikastetxean.

EKAINA

- Kultura trukea Baionarekin, Beart taldearen erakusketa Baionako Des Corsaires galerian.
- Hurren pintura lehiaketa Simon Arrieta gaiari buruz.

ABUZTUA

- Hirugarren "margolan-foruma", Donostian egitekoa, San Telmo Museoan, abuztuaren 2an, 12:00etan. "El picador" (1953) izango da iruzkindu beharreko lana. Museoaren lagunek antolaturiko "Hilabeteko lana" izenekoaren barnean kokatzen da. Moderatzailea: Miguel Angel Elkoroberezibar bergarar ikertzailea izango.

IRAILA

- Simon Arrietaren bizitzari buruzko liburua argitaratzea. Liburuaren aurkezpena Bergarako Udaletxean, San Martin jaien barruan.
- Bergarako aire zabaleko pinturaren XL. Lehiaketa, Simon Arrieta izeneko sari berezia izango du eta etorkizunean "Simón Arrieta pintura lehiaketa" izena hartuko du. Irailaren 13an egitekoa.
- Simon Arrietaren bizitza eta lanei buruzko kultura topaketa Donostian.

URRIA

- Simon Arrietaren Erakusketa Antologikoa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbara aretoan. Inaugurazioa urriaren 8an eta amaiera azaroaren 14an.

AZAROA

- Simon Arrietaren Erakusketa Antologikoa Bergarako Aroztegi Aretoan. Inaugurazioa azaroaren 20an eta amaiera abenduaren 20an.
- Laugarren "margolan-foruma". (Zehaztu beharreko data eta lekua)

ABENDUA

- Simon Arrietaren omenez BEART (Bergarako Arte Elkartea) kolektiboak antolaturiko II. Erakusketa Bergarako Aroztegi aretoan, mendeurreneko ekitaldien amaiera gisa. Inaugurazioa abenduaren 24an, 19:00etan, eta amaiera 2016ko urtarrilaren 10ean.